

Lurrak ura edan

Zeinek esan du ahoa behar dela ura edateko? Hurrengo esperimentuan ikusiko duzu lur-mota desberdinek zenbat ur edaten duten.

Behar dituzu


- 3 onil (plastikozko botilen muturrek balio dute)
- 3 gasa-zati; 3 edalontzi eta 3 goma.
- Ura
- Hondarra
- Buztina
- Loreontziko lurra

Zer egin

1. Gomarekin, jarri gasa-zati bana onil bakoitzaren muturrean.
2. Jarri onil bat ontzi banatan.
3. Onil bat hondartzako hondarrez bete, bestea buztinez, eta hirugarrena lurrez.
4. Bakoitzari bota baso bana ur, eta itxaron pare bat minutu.

Ur-kantitate bera jaso al duzu hiru kasuetan? Zein onilek gorde du —edan du— ur gehien, hondarra zuenak, buztinez betetakoak ala lurra zuenak?

OHARRA: esperimendu bera ur-bolumena neurtuz egiten baduzu, lur-mota bakoitzak zehazki zenbat ur gorde duen jakin ahal izango duzu.



Azalpena

Mota askotako lurak daude, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Euri-urari eusteko lur bakoitzak duen gaitasuna ezaugarri garrantzitsua da lurlean bizi behar duenarentzat.

Adibidez, hondarrean urak berehala egiten duenez ihes, duntako landareek sustrai luzeak eta ongi zabaldutakoak garatu behar dituzte ahalik eta ur gehien hartzeko.